



## Laborarien kantuak

**Bertsu hauek Xantako-ko golfa egin zelarik, horrek sortu miseriak, ezbeharrak eta kezkak aipatzen dituzte. Mende hunen astean etxetiar eta bordari frango kanporatuak izan ziren Xantako-ko golfa egiteko. Etxalde tikiak zitezkeen laborari-arraintzaleak baitziren horko jendeak.**

1. Mila pasata bederlatzi ehun hogeitasei urte da salbatzailea etorri zela bekatarien artera sendimenduak bertsu berritan orai noa erratera gozotik huna jende gaixtoen arraza galdu ote da.
2. Ezen hemeretzi pasatu dira hau hogeigarren mendea aunitzek diote norat goaz gaixtotua da jendea egiak ditut publikatuko gezurra balitz hobea neronek lehenbizi urrikari dut langile miserablea.
3. Mundu hau balitz zabalagoa halere gehiago galde desira dugu neke gutirekin gauza guzia debalde gure tartera heldu ez bada gaitz gaixto eta uholde nahi eza ez oraindik elgarrentzat hasi beharrak gerade.
4. Lehenago ere aitonen batek hori egia erran du Lur huntan ez da hoinbertze alfer, Santa sekulan izan du Errekoltare gaur baino gehiago, lehen beti lurra eman du Nahi ta ez beharko lan egin edo jendea bakandu.
5. Aitona zahar hoierran orai aparte ez dire Etxe guzia ostatu jarri eta landa denak bide Laborarien etxe maiteak abantxu erori dire Kapitalizta pobrearentzat batere ez da kupire.
6. Teilatu traste pareta oker bat litaike desoratu Eginez geroz etxe horiek nihork ez du antolatu Laboraria engaiatu dela ta errentak doblatu Pobrearen neke ta izerdiz aberatsak kontsolatu.
7. Belarra bezain usu atera zaizkigu etxe berriak ertxi ta labur altura guti iduri xori kafiak horietan nahi ta ez bizi beharko duten familia tikiak horra zer gisaz apaindu diren Euskal Herriko tokiak.
8. Aitona zahar batek hala erran du duela ehun bat urte Etsai gaixtoek mundu triste hau xirxifikatuko dute Bazter guziak etxe ta bide bilakatuko dituzte Hori asmatu zuen gizonak bazuen zenbeit bertute.
9. Xapel handien menea gaude pobreak eta flakuak Beren eskuko hartu dituzte Euskal Herriko xokuak Bazter guziak etxe ta bide biba josteta lekuak Manera hortan ez daduzkazu beterik ogi zakuak.
10. Kapitalistak dira gradutan jende pobreak soldadu Partikulazki laborariak kontrarioa sobera du Aberats puxant errege haundi dutenak hoinbertze gradu Denek goseak hil behar dute lurra ematen ez badu.

11. Adinak, gaitzak edo aizkorak bakandu ditu oihanak Hoiak guretzat egin zituztenak orai mundutik joanak Gure aldetik landa ditzagun ondokoentzat ordainak Hori egiten ez baldin bada gure semeek zer lanak !
12. Idurki ona behar gaituzu gomene bada argitu Gure lurrari gure indarrez pozoindurak garbitu Gure lur onak laguntzen partez kontrarioak baditu Eskual Herriak pena guziak nun behar ditu kabitu.
13. Orai ere eman dezagun konparazio batera Azi txar bat etortzen bada landare honen tartera Huna behar da kupire gabe ongi zainetik atera Harrika bota gehiago trabarik egingo ez duen partera.
14. Gure Jainkoak zabaldu zuen oihal ederra hau da lurra eta berritz ere baluke lana zuzentzekotan makurra fede onean bizi garenak jende gaixtoen beldurra egiak ez du gehiago balio nausitua da gezurra.

2, 4, 5, 6, 8, 9, 12, 13, 14. bertsuak Urbistondo Sara Ihiteiko familiak gehituak dira eta goiko esplikazionea ere beraiek errandakoa da. Huna beraz kantua osorik Fifin eta Ihitekoeri esker.

## Hemeretzi mende

Hemeretzi mende ta erdi du jadanik  
Jesu Kristo lurretik, zerurat joanik  
Bertsu berriak aurten, kantatzen ditut nik  
Euskal Herri maiteak, gogorat emanik

Aspaldian gogoan, bainuen desira  
Larrun mendi gainean, aurten izan gira  
Xoraturikan egon handikan begira  
Euskal Herrian toki ederrak baitira

Ageri da Nabarra eta Gipuzkoa  
Handik landa Lapurdi paregabekoa  
Gero Baxenabarre eta Xiberoa  
Urrunak gordetzen du gaineratikoa

Itsasoan xalupak dabilta arraintzan  
Ainitz gizon lurrean ari laborantzan  
Mendietan ere gau egun artzaintzan  
Horra Euskal Herrian zer gisaz gabiltzan

Grazia eske nago Ama Birjinari  
Jar zaitte zerutikan ororen gidari  
Emaguzu bakea mundu guziari  
Zabal zazu fedea Euskal Herriari

Bertsu hau eman ditut Lapurdi maitian  
Larrun mendi gainian den hotelno batian  
Berritz etorriko naiz lagunuen artian  
Jainkoak plazer badu heldu den urtian



Jan Pier LAXKANO-  
ren ahotik.

Airea:  
Kattalin  
ttuku...ttuku